

Calabardina-ko itsas sugeak.

Calabardina Cope muinoaren sartaldean kokatua dago, Aguilas hiritik gertu.

Jada desagertutako atunetak hartzen zuen espazioaren azpian, ugariak dira Mediterranearen itsasbazterreko arrain komunitate tipikoak; salpak, muxarrak, eta beherago, itsas hondoan, itsas sugeak.

Itsas sugeen ugaritasuna da Calabardinako itsaspeko munduaren ezaugarrietariko bat; suge formako gorputza, kolorazio nabarmena eta igeri egiteko modu uhinduna. Alde batetik bestera mugitzeko ez bada, arrakala, zulo eta kobazuloetan aurkitzen dute babesia.

Azken hamarkadetan, itsas hondoak arraste arrantza ilegaletik babestu asmoz, arrantzontzi zaharrak hondoratu zituzten, disuasio-elementu gisa joka zezaten, uharri artifizialek bezala, eta aldi berean espezie ezberdinei babesia eta estalpea eskaintzeko.

Itsasontzi hauetariko batzuek, *Ana Maria* eta *El Sable*-k, besteak beste, ur hauetan hartzen dute atsedena. Kontrolatutako hondoratze hauen hondarrak Calabardinako itsas sugeentzat habitat ezin hobea dira, eta ale bakartiak, bikoteak edo taldeak ikus ditzakegu igerian, dantzan ari balira bezala, ontzi zahar hauen egur puska artean.

Ontzi hauek hondo garbietan, hareatsu edo detritikoetan, hondoratu ziren, eta generokideekin bizitza sozial aktiboa erakusten duten itsas sugeez gain, itsasoko beste hainbat biztanle erakarri dituzte, mero handiak eta abadira faltsuak, esaterako.

Gertutik, itsas sugeen ahoak hortz txiki eta zorrotzak dituela ikus dezakegu, eta bere azalaren zimurtasuna hauteman.

Izkira txiki eta koloretsuek egiten dituzten garbiketa lanak ere ikus ditzakegu, beraien ostalariek sorgor dirauten bitartean.

Desparasitazioa ez dute izkirek soilik burutzen, karramarro ermitauak ere parte hartzen du, eta horrela itsas sugeek eskainitako parasito eta janari hondarrez elika daitezke.

Itsas sugearen jarrera lasaiak harritu gaitzake, beste organismo batzuen aurrean harrapari oldarkor eta amorratua baita. Baina harrapakinak bere elikagaia dira, eta krustazeo txiki hauekin berriz, inorentzat kalterik ez dakarren harremana dauka.

Baina beste edozein animaliaarentzat ez da gomendagarria itsas sugeen hortz zorrotzen aurretik pasatzea, gordetzen diren arrakalalara gonbidatzen gaituztela dirudien irribarre iraunkorra erakutsi arren.